

Ezpalak

JON TORNER

Maite Agirre k jaso zuen Euskarazko Egile Onenaren Max saria, hilaren 16an Bilbon egindako ekitaldian, *Neska politak artasoro alaiak* antzezlanagatik. Josep Maria Pou zuzendariaren *La cabra o qui es Sylvia* antzezlan izan zen garaile nagusia, lau sari eskuratu baitzituen. Bestalde, Ohorezko Maximinoak ere banatu zituzten. Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak, Gabriel Aresti zena, Marivi Bilbao, Saturnino Garcia eta David Barbero saritu zituzten.

Bernardo Atxaga k *Markak. Gernika 1937*



saiakera idatzi du. Gernikako bonbardaketa nazioartean salatzen den garai hartako Euzko Jaurilaritzak kaleratu zuen liburuxkatik abiatuta idatzi du Atxagak Pamielak argitaratu duen saiakera. Pamielak Euzko Jaurilaritzaren 1937ko agiriaren faksimilea ere kaleratu du.

Joxe Migel Barandiaran ek

1921 eta 1975 urteen artean idatziko *Eusko-Folklore, Materiales y Cuestionarios* aldizkariaren 118 zenbakien faksimileen bilduma argitaratu du Joxe Migel Barandiaran Fundazioak. Euskal etnografoak ehunka pertsonaren lekukotzak bildu zituen lau orriko hilabetekari hartan. 118 zenbaki horien faksimileak bi liburukitan bildu dituzte, aldizkariaren izen berberarekin. Bestalde, Santiago Onaindia idazle karmeldarraren idazlan guztiak bildu ditu Amorebieta-Etxanoko Udalak, DVD batean.

Lucia Lacarra dantzariak Zumaiaiko Urrezko Domina jaso zuen San Telmo jaien egitarauaren barruan. Alderdi politiko guztietako ordezkariak osatzen duten Udaleko Bozeramaileen Batzordeak aho batez onartu zuen domina Lacarrari ematea. Zumaiaiko historian lehen aldiz eman duten Urrezko Domina.



Juan Jose Agirre Lazkaoko beneditarren liburutegiko arduradunak jasoko du Euskal PEN Klubaren 2007ko Idazluma. Agirrek sortu zuen beneditarrek Lazkaon duten artxibategia, eta berak kudeatzen du euskal kulturaren eta politikaren gordailu zabala den artxiboa. Ekitaldia Lazkaoko Udaltxean egingo da apirilaren 19an.

Artista berrien alde egingo du DFotok

Maiatzaren 3tik 6ra bitartean egingo da Donostiako Kursaallean Ordoñez Falcon Argazkigintza Fundazioak antolatzen duen Dfoto azoka. Nazioarteko 41 galeriatako artisten argazki eta bideoak izango dira ikusgai azokan. Carolina Martinez DFotoko zuzendariak azaldu duenez, artista berrien alde egin dute aurten. Bestek beste, Nuria Canal, Javier Nespral, Marta Serna, Roud Van Empel, Jon Mikel Euba eta Ibon Aranberri



JOSÉ LUIS SANTALLA

argazkilari eta bideo artistek osatzen dute belaunaldi berria. Hala ere, Candida Hoffer, Thomas Roof eta Chema Madoz bezalako artista ezagunagoak ere izango dira azokan, Madoz aurrenekoz. Donostian izango diren 41 galerietatik 13 estreinakoz etorriko dira, Vienako Grita Insam eta Layr Wuestenhagen, Frnakfurtuko L.A. Lothar, Dublingo Rubicon eta New Yorkeko Soskine eta The Project, esaterako. Informazio gehiago: www.coff.es/es/dfoto07.

111 Akademia: irakurlearen garrantzia sendotzea helburu

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAK 111 Akademia sortu du euskal literaturzaleen arteko lan eta harreman egitura sortzeko eta irakurlearen presentzia eta parte-hartzea sendotzeko helburuarekin. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Beterriko Liburua izeneko ohorezko literatur saria banatzen du 1996tik. Akademia berriak izango du hemendik aurrera ohorezko saria emateko ardura. *Beterriko Liburua* literatur aldizkariaren ardura ere akademiaren esku izango da. 111 zenbakiaren zergatiaz galdetuta, egitasmoaren handitasuna agertu nahi izan dutela azaldu dute arduradunek. Izan ere, 111 akademiakide izateko helburua du egitasmoak. Oraingoan, 2000. urtean sortutako Epaimahai Orokorreko 43 lagunek osatuko dute.

Hemezortzi antzezan eskainiko dituzte Asvinenea lehiaketan

ASVINENEA ELKARTEAK, Ardilatxa eta Xpression! kolektiboen lankidetzaz, Asvinenea Poltsikoko Antzerki Lehiaketa jarri du abian. Hemezortzi taldek parte hartuko dute ekimen horretan, ekainaren 1era bitartean. Zortzi eta hamabost minutu arteko iraupena izango duten obrak eskainiko dituzte, Adunan, Asvinenearen egoitzan. Hainbat sari banatuko dituzte. Antzezan onenak, adibidez, 1.000 euro jasoko ditu eta gainera, Tele Donostian emitituko dute, publikoak aukeratutako lanarekin batera. Informazio gehiago: <http://www.asvinenea.com>.

Exprai ilustratzaileak Nabarra aldizkarian: «Kanon hauek lapurreta justifikatu besterik ez dute egiten. Behin pirateria egon badagoela onartu ondoren, pastelaren zati bat ziurtatu nahi dute beraiantzat.

Horrela, herritar guztiak lapur bihurtu gaituzte, edota susmagarri behintzat. Gerra prebentiboen, atxiloketa prebentiboen eta hainbat gehiegikeria prebentiboren ondoren, isun prebentiboa asmatu dute. Zeren eta zuk, irakurle, agian oraindik ez zenuen zure bizitza osoan ezer pirateatuko, baina badaezpada, egin ez duzun delitua ordaintzen hasi beharko duzu».

Mariasun Landak Garai: «Niri amorru apur bat ematen didana duintasun minimorik gabe liburuak argitaratzea da. Helduen literaturan kalitate ezaren-

gatik argitaratuko ez liratekeen lanak haur eta gazte literatura bezala kaleratzea. Haur eta gazte literaturan aritzeak ez du esan nahi exijentzia maila jaitsi behar dugunik».

Mike Strangelove Sextysers taldeko kideak Entzun! aldizkarian: «Hitz guztiak euskaraz egin ditugu (...) Zorionez konturatu gara badugula publiko euskalduna, baina baita erdalduna ere, eta horrek asko indartzen gaitu. Egia esango badizut, rock&rolla ongi egiten bada, erraietatik ateratzen bada, hizkuntzaren oztopoa –oztopoa baldin bada– erraz gaingitzen da. Adibidez, Thee Michelle Gun Elephant-ek japonieraz kantatzen zuen; fisik ulertu ez arren zaleak dituzte mundu osoan».

Bilbon ospatuko da Bizkaiko Dantzari Eguna, maiatzaren 6an

BIZKAIKO DANTZARI EGUNA Bilboko Zorrotzaurre auzoan ospatuko da, maiatzaren 6an. Ekitaldi nagusiak eguerdiko dantza emanaldia eta arratsaldeko erromeria izango dira. Goizeko saioan, dantzari-dantzak (Agintariarena, Zortzinangoa, Makil Jokoa, Banangoa, Binangoa...), Gipuzkoako dantzak (Agurra, Makil Txiki eta Zinta dantza), Eltziegoko dantzak (Correcalles, Cuatro Calles, Jota...), gorulariak (Domingiloa eta Arku-dantza) eta Kaixarranka dantza eskainiko dituzte Bizkaia osoko taldeek. Egun osoan zehar, besalalde, puzgarriak, txosnak eta artisau azoka izango dira Zorrotzaurren, Euskalduna zubiaren alboan. Egitarau osoa: www.dantzanet.net.

Artxibategiko fondoak sareratuko ditu Euskal Ikasketen Zentroak

NEVADAKO EUSKAL IKASKETEN ZENTROAK 40 urte bete ditu aurten. Urteurrenarekin batera hainbat proiektu jarri dituzte abian. Horien artean artxibategiko fondoak Interneten eskuragarri jartzeko web gunea. Datorren hilean jarri nahi dute abian web gune berria. Artxiboko materiala, dokumentazioa, argazkiak, audio zein bideo grabazioak eta katalogotik kanpo dagoen materiala jarriko dituzte eskuragarri. Zentroaren 40 urtetotako ibilbidea laburbiltzen duen erakusketa ere zabaldu dute urteurrenereko ekitaldien barruan. Nevadako Euskal Ikasketen Zentroa: <http://basque.unr.edu>.

Istilu

**Jantziak,
osagarriak...**

**Deitu eta katalogoa
eskatu !!!**

615 73 21 12

www.istilu.com